

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRANGO UDALA

“La Traviesa” taberna-jatetxearen ustiapenaren lizitazioa

Iragarki honen bidez, deialdia egiten da “La Traviesa” taberna/jatetxea (Portal de Cristo 11, Lagran) errentan hartzeko kontratua esleitzeko, honako datuen arabera:

Erakunde esleitzaila: Lagrango Udala.

Kontratuaren objektua eta izapidetzeko era: Lagrán herriko Portal de Cristo kaleko 11-13 zk.etan kokatutako taberna/jatetxea eta erantsitako instalazioak ustiatzeko zerbitzuen emakida.

Espedientea izapidetzeko era: arrunta; prozedura irekia; ekonomiaren aldetik eskaintzarik onuragarriena, zenbait esleipen irizpide kontuan hartuta.

Kontratuaren iraupena: bi urte, eta urteka luza daiteke, gehienez ere lau urtera arte.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: lizitazioaren oinarrizko aurrekontua (zergak aparte) urteko hiru mila euroko errenta izango da.

Bermeak; behin-behinekoa: 180 euro. Behin betikoa: esleipen prezioaren ehuneko 10, esleipenaren arabera kalkulatuta.

Agiriak eta argibideak eskuratzea

a) Lekua: Lagrango Udala, edo web orriko kontratatzailearen profila: www.lagran.org

b) Agiriak eta informazioa lortzeko epea: parte hartzeko eskabideak aurkezteko azken egunera arte. Espedientea Lagrango Udalean (telefonoa: 945378059) aztertu ahal izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasi eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

Eskaintzak balioesteko irizpideak:

Proposamen ekonomikoa: 40 puntu

Kontserbazio eta mantentze lanak: 30 puntu.

Ordutegia eta jatetxe eta janari zerbitzuak: 20 puntu

Taberna/jatetxeko zerbitzuari atxikitako langileak: 10 puntu.

Eskaintzak aurkeztea: Lizitatuzaileek Lagrango udaletxean aurkeztu beharko dituzte eskaintzak astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara arte. Hamabost egun izango dituzte horretarako, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epea amaitzen den eguna larunbata edo jaieguna bada, eskaintzak aurkezteko epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Eskaintzen gutun azalak irekitzea: eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta biharamunetik hirugarren egun baliodunean, 10:00etan, Lagrango udaletxeko batzar aretoan. Azken eguna larunbata izango balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke.

Iragarkien gastuak. Esleipendunak ordainduko ditu.

Lagran, 2017ko otsailaren 2a

Alkatea

JOSE MARIA MARTINEZ FERNANDEZ